

# hirugarrengotza politikoak



PATXI LÓPEZ DE TEJADA FLORES



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

PATXI LÓPEZ DE TEJADA FLORES

# Hirugarrengotza politikoa

## AURKEZPENA

Liburu honetan biltzen diren artikuluak hogeita hamar urteko denboraldian (1994-2024) idatzi eta (batzuk) argitaratuak izan dira, eta nahiz eta izaeraz eta luzeraz ezberdinak izan, ezaugarri komun bat partekatzen dute: egungo gizartean planteatzen diren funtsezko eztabaida politikoei ekarpen analitiko eta extraideologiko bat plazaratzen saiatzea, gaurkotasun hutsetik gain edo azpitik eraikitzen dena.

Historian zehar eratu izan diren diskurtso ideologikoen zenbait aspektu jorratzen dituzte, beren barneko koherentzia ezak edo kontuan ez hartutako konnotazioak identifikatzen eta zehazten saiatzen direlarik, errealitatetik beren aldentzea salatuz behar denean. Irakurleak hausnarketarako aitzakiatzat jotzen baldin baditu, beren helburua lortu izango dute soberan.

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA

AURKIBIDEA

ZAPALKUNTZAREN AURKA; ZAPALDUTAKOEN ALDE?

VOX POPULI, VOX DEI?

NAZIOARTEKO ZUZENBIDERIK?

ESTATU DELINKUENTEA

GEHIENGO GEOGRAFIKOAK

EGITURAZKO ZUZENGABEKERIA

URREZKO ZEKORRAK

DEMOKRAZIAREN BAZTERRAK

AUZI ERLIJIOSOA

DISKRIMINAZIO POSITIBOA

BIRGIZARTERATZEAREN FABULA

MUGA ANGELUA

AKATSA

HECHO DIFERENCIAL

SABINO ARANA

EXODOA

KALEKO HIZKERA

LIZUNA

IZENA

LEGEA EZAGUTZEA

## ZAPALKUNTZAREN AURKA; ZAPALDUTAKOEN ALDE?<sup>1</sup>

Ideologiak dira, printzipioz arrazionaltasunak izan arren eta beren dei sentikorraren ondorioz, gure egunetako mitifikazioen iturririk garrantzitsuenetakoak.

Eta hau, egungo mugimendu politiko guztien leku komun bat dela (ez bakarrik oraindiarrenak, baita bere aurretiko gertakariak ere), kulturalki berezitatutako joera politikoetan garbiago da: langileriaren gorapazio topikoetatik indigenismo historikoraino, ia beti nazionalismoetan.

Zaila suertatzen da aribidea ulertzea, ad personam argumentazioaren gehitzapena argumentazio abstraktuei, defentsaren osagai idealizaziotzailea, komunikazio politikoaren behar estetikoak (irrazionalak). Zaila da, batik bat, kausalitate-erlazio bat finkatzeko ezintasunagatik: gizarte-mitifikazioak ere proiektu-dukien iturri baitira, oraindik oso boteretsua, eta bestetik jatorriz idealizazio argumentatiboak per se jarrerak bihurtzen doaz azkenean.

Kontaminazio lehiati eta askotan bistako bat bezala diraute gure praxi politikoan, lastra bat bezala gure arrazionalizapenetan, eta halere geldi eta isilki hazten jarraitzen dute gizarte debate zientifista eta unibertsalista interes berezien konkurrentzia bilakatuz.

Ez al da jaugin horretaz kontzientzia hartzeko ordua heldu ote?, gainditzen ahaleginak egiteko gure iritziei jantzi barroko horiek ipini orde?

---

<sup>1</sup> EGUNKARIA. 1994/08/09.

## VOX POPULI, VOX DEI?<sup>2</sup>

Mugatua iruditzen zait mezuen akats edo igarpenen edota alderdien aldakortasunaren terminoetan egindako hauteskunderen emaitzen azterketa bat: autokritikaren ahalmen eraikitzailea ukatu gabe, gizartearen eta osatzen duten taldeen bilakabide politikoak nahiko konplexuak dira agian (eragiten dituzten faktoreak bezala: baliabideen aldaketak, kultur eraldakuntzak, komunikabide publiko eta pribatuen inpaktua) irakurpen egozentriko bat egiteko.

Eta mugatua iruditzen zait ez bakarrik hedakuntza-kanpainen intzidentziaren osagabetasunagatik, hautesleriaren adierazpenaren karakteristika bukagarriaren mito horien ahultasunagatik baita ere baizik.

Momentu batean zeinean gizartearen (herria bezala, herritargo orobatasuna bezala) kontzeptuaren funtsa auzitan jartzen den -gizartearen subjektibotasuna alegia-, apur bat irrigarria ematen du herria epaile apelaezinaren metafora demokrata zaharrak, eta hauteskunde ondoko burutazioen artean dirauten bere ondorioak.

Kondairak erakusten du nola egun batean gizarte – errepresentazio gabeko utopiak direnak beste garaietan gizarte – oinarri zabala duten ideologietan bihurtzen diren, nola gizarte – taldeen joera politikoak oso gorabeheratsuak diren. Epaile bat zalantzati samarra apelaezina izateko.

Finean, alternatiba politikoaren betekizuna gehiengoaren borondate politikoa eraikitzea da, ez alderantziz, eta aipatu den bezala autokritika edozein aitzakiarekin autoeratzeko erabiltzea positiboa da (inboluzionismotik ihes egiteko batik bat), eta norbaitek sinetsi eta onartu dituen aurreiritzi ideologikoak leial eta koherenteak izan badira, haietatik gizarte-kritika egitea da eman behar dion erantzuna hauteskunde emaitza kontrakoei.

---

<sup>2</sup> ABOKATUOK. 22 zka. 2005ko urtarrila. 29. orr.

## NAZIOARTEKO ZUZENBIDERIK?<sup>3</sup>

Nazioarteko Zuzenbidea ez da, batzuetan adierazi izan den bezala, gehien bortxatua izaten den ordenu juridikoa, bai ordea zigorgabeki bortxatuenetakoa. Zergatik? Arazoa, nire iritziz quid nominis kontu bat bezala planteatzen da printzipioz.

Gure aroan, Nazioarteko Zuzenbidea eskuarki deitzen dugun ohiturazko tradizioen eta legezko arauen corpora, elkarren segidan egin izan diren subiranotasun lagapenen bidez osatua izan da bere subjektuak bezala ulertuak izan direnen partez Berpizkundeko egitura politiko modernoek kristalizazioa geroztik: estatuak; eta honek erabaki izan zuen haren definizio bat bere produkzio moduen arabera, ez bere objektuaren edota izatearen arabera: Nazioarteko Zuzenbidea, nazioen artean itunduriko zuzenbidea, estatuen artean itunduriko zuzenbidea.

Eta halere, ez zaigu zaila suertatzen ohizko kontzeptu honen azpian dautzan osorik ezberdinak diren bi errealitate juridikoen existentzia zehaztea:

Propioki nazioartekoa den zuzenbide bat, batetik, estatuen arteko harremanetatik sortutako zuzenbide bat bezala era beraien tratamendura murriztua (bere ultima ratio nazioarteko elkarmenpekotasun hazkorrean etzanik), nahiz adar pribatua bat nahiz publiko bat bilduko lituzkeena, bere itunetako zuzenbideko, espazioko zuzenbideko (lurralde-kompetentziak eta aireko, itsasoko eta estralurtar espazioak), harreman diplomatiko eta kontsularretako, eta nazioarteko antolaketako bai maila mundialean bai erregionalean atalekin.

Nazioz gaindiko zuzenbide bat, Gizateriakoa, gizatasunekoa, munduko zuzenbide bat, bestetik, oinarri juridiko esentzialen gune bat bezala (giza-naturatik intelijiturikoak edo historikoki konkistaturikoak, nola nahi), maila globalean positibatuak (horrek erakusten du ere "Nazioarteko erkidegoa" esaeraren zentzuz kontrakotasuna ezezko definizioa

---

<sup>3</sup> ABOKATUOK. 20 zka. 2004ko uztaila. 16. orr.

bezala: logikoa Giza–komunitatea edota Mundu komunitatea esatea izango litzateke), bai giza–eskubide gizabanakoak eta nazionalak (Gatazka Armatuetarako Zuzenbide Humanitarioa barne) eta bai Ingurugiroaren Kontserbaziorako Mundu Zuzenbide bilduko litzukeena.

Bereizketa honen zentzua Nazioz gaindiko - Mundu Zuzenbide azken honen betetzeari bertualtasuna eta bermagarri objektiboak ematea besterik ez da, bere izaera paktatuaren kostua kentzen saiatuz eta horrela nazioarteko harremanen tirabiren gainean kokatzen ahalbidetuz (eta bereziki egoeraren araberako botere – erlazioen gainean), eta eraginkorra bihurtzea abstraditutako erakunde barruti burujabe baten sorkuntzaren bitartez.

Gizartearen berezko Zuzenbide baten asmoa ez da garai hauetan nahiko sendoki loratu (beharbada pentsaera iusnaturalaren krisialdi positibistaren kirrizkiengatik). Zuzenbideko kontzeptu batean jarraitzen dugu, zeinean legea nazioari berezkoki loturik den zerbait ulertzen baita, eta horregatik ez dugu kontuan edukitzen nazioaren gainean Zuzenbide bat egotea. Giza–sistema juridikoak funtsean naziozentrikoak dira (idiosinkrasian, praxian estatuzentrikoak dira), eta giza–kondizioaren batasunean oinarritutako Mundu–zuzenbide batengan sinesmena gaur zeharo ideologikoa da, kultura juridikoen eta gizartearen arteko konfluentzia aurreragarri batengan oinarritua izaten jarraitzen duen bezala.

## ESTATU DELINKUENTEA<sup>4</sup>

Estatua, demokraziaren teoria mendebalduan, eta partikularrak epaitzen dituen elkartzearen sublimazio inpartziala eta bere subiranotasunaren gordelaria izanik, bortizkeria legalaren monopolioa daukan erakundea izango litzateke, legaltasuna balio absolutu bezala (“legearen inperioa”) eta gizarte-ordenua zaindu arren.

Betearazteko botereak zilegitutako erakundezko bortizkeria abusuzko era batean erabiliko lukeenean, sistemaren izpirituaren kalterako, eta giza – eskubideen (demokrazia materiala) kalterako batik bat, estatuaren hiru botereen arteko kontrol interorganikoak batetik, eta iritzi publikoak alternatiba izatea bestetik (hauteskundeko demokrazia formal), balazta aski bat izango lirateke gehiegiaurrean.

Lehenbiziko faltsukeria handia, arestiko historia kasuz beteta dago zeinetan hiru botereen arteko elkarrekiko babesak, “estatu-arazo” horietako baten erakundezko jasokundearen ondorioz, eta iritzi publikoaren desalternatibazioak komunikabide publiko eta gehiengodunetan luzaturiko maneiuen baten bitartez, sotila dena gehiago edo gutxiago, gutxitu eta baztertu duten demokrazia materiala indarrean egotearen aldeko borroka objektiboa, eta estatu – terrorismoa zigorgabeki aurrera dadin ahalbidetu.

Platonek bizirik zirauen, “nork zaintzen al ditu zaindariak?”.

Erantzuna, mundu-guda ondoko su aldarrikatzailean, 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren sinatzaileek formula berri batean aurkitu zuten (gero esparru mundial eta erregionalean ia babes komenio guztiek jarraitua izan zena), zaindarien elkar zainduko zuten: estatuen arteko lehiakidetasun tradizional eta ideologikoak kontuan izanik, aski izango litzateke gobernuen artean elkarrekiko salaketa sistema bat finkatzea auzitegi burujabe baten aurrean arau-hauste nabariak eta bortxatze kasu iraunkorrak auziperatzeko.

---

<sup>4</sup> ABOKATUOK. 24. zka. 2005ko uztaila.

Eta bigarren faltsukeria handia: hain oinarri makal eta egoeraren arabera bat gutxi berandutu zen ahultzen nazioarteko elkarmenpekotasun ekonomiko hazkor eta aldakorren, blokeen oreka epelaren, eta finean maila globalean estrategi–elkarketa konplexuen aurrean; egia dena zera da, ez dela inolako salaketa orokor garrantzitsurik egon, ezta inolako prozesu burujaberik ere estatu–terrorismoaren agerpide masibo eta basatien ondorioz.

Eta mekanismoa sartu denean ere zeinaren arabera banakoak zilegiarazten ziren beraien estatuen aurka joka zezaten nazioarteko auzitegietan, barruko bide judiziala burutzeko betebeharrak denboralki urrundu zuen benetako prozesua praktikoki eraginik gabeko maila batzuetara bai frogaketagatik bereziki bai instrukziotik oro har.

Estatuaren bidegabekeriaren fiskalizazioaren labirintoa oso korapilatsua izan da, bai: orain arte eman izan zaion instrumentalizazioa antzua frogatu da. Agian eratzen ari den formula berrian bilatu beharko litzateke irteera, ahalmen arakakor zuzena duen nazio gaindiko fiskaltza baten indartze eta zabaltzean, estatuetatik funtzionalki eta organikoki deslotutako auzitegi iraunkor batzuei lotuta, Nazioarteko Zigor Auzitegiarekin hasi den bidetik, baina bilaketa hori jarraitzeko derrigorrezkoa dugu lehen oztopoa gainditzea, irteera hori aurkitzeko eta sustatzeko orokortutako eta benetako borondate politiko bat alegia.

## GEHIENGO GEOGRAFIKOAK<sup>5</sup>

Herrien autodeterminazio eskubidearekiko (aldarrikatua izan den bezala Eskubide Zibil eta Politiko Nazioarteko Itunean -lehen artikulua-, berezko elkarte etnikoei dagokien ahalbidea bezala bere status juridiko eta politikoa estatuen sisteman eta bere kondaira edozein momentuan erabakitzeko) errespetu ezak eta ez betetzeak ez du bakarrik eragin azken bost hamarkada hauetan eza nabari bat garapen politikoan eta gatazken aurrezaintzean munduan zehar, beste erakunde demokratikoen potentzialtasunean higadura garrantzitsu bat ere baizik, eta bereziki haien artean esentzialena denarengan: hauteskundeak eta gehiengo osaketa.

Bat baldin bagatoz demokrazia zehaztean printzipioz eredu bat bezala zeinaren arabera elkarte baten herritarrek beraien jaurlaritzaren zentzu politikoa erabakitzen duten eta noizbehinka parte hartzen duten haren burubiderik altuenetan (via referendum), hau da, eredu bat bezala non gestio publiko batek ukitutakoak gestio horretan parte hartzen duen hein batean, ondorioztatu behar dugu ez autodeterminatutako nazioek partaidetasun printzipio horren narriadura kontsideragarri bat esperimentatzen dutela beraien borondate politikoa normalki zentsu zabalagoetan zirriborratua izanik ikusterakoan.

Jakina, disfuntzioa agertzen da bakarrik bistakoa bilakatzen denean nazioaren gehiengoaren zentzuaren eta estatuaren artean jazargo bat badagoela, baina hori kasu franko bat bihurtu da gaur egungo aribide politikoan (esate baterako, Euskal Herria izan zenean espainiar Estatuaren barruan bai Konstituzio espainiarra (1978) eta bai NATOn sartzea (1986) arbuiatzean hautesleri bakarra).

Azkenik, naturala da nolabait gizarte horiek zeintzuei hazkunde berezi batek eta kultur faktore urrunkorrek talde nortasun ezberdinak eman dizkieten sentikortasun ezberdinak erakustea gai publiko batzutan: arazoa zera da, nola aurki daitezkeen

---

<sup>5</sup> ABOKATUOK. 25. Zka. 2005ko urria.

jatorrizko agente politiko horien autogobernu demokratiko esentzial baterako sarbidea ahalbidetuko duten tresnak edo, bestela esanda, litekeena ote den herri baten borondate orokorrarekiko errespetu hori lortzea (gainezartze galerazpen hori) bere autodeterminazio eskubidea (estatu bat sortzeko aukera barne) ez badago onartuta.

## EGITURAZKO ZUZENGABEKERIA<sup>6</sup>

Helburu politikoekin (publikoekin) sortutako bortizkeriaren erabileraren azaroari arrazoizko hurbilketa bat gure zirkunstantzian abstrakzio eta hoztasun maila kontsideragarri bat eskatzen duen gauza da: komunikabideen, globoaren txokoetan elkarren ondotik doazen eguneroko berri izugarrien, eta gobernuen edo partikularren alde bateko mezu suhartuen zaratan, hausnarketa burujabe baten ahalbidea gure ondasun filosofikoaren eta logika arrazional humanistiko baten argian eskasa da.

Dena dela, bere premiazko beharra ezin da ukatu, eta bere egokitasun, hain gaur egungo fenomeno bat izanik, zalantzatik kanpoan dago ere.

Nire iritziz, arazoa bi ikuspuntutik azter daiteke, jatorrizko agente probokatzaile denatik, eta luzaturiko bortizkeria politikoko aribideetan garatutako dinamikatik.

Lehenbizikoari dagokionez, abiapuntu bat onartu behar da objektiboki: gure garaian, munduan sorturiko barne gatazka gehienak (integrismo erlijiosoa edota eskuineko edo ezkerreko ideologikoa izan ezik, eta hain gogorak ez diren beste liskarrena izan ezik ere) herrien autodeterminaziorako funtsezko eskubidearen (Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Itunaren lehenbiziko artikuluan sagaratua: “Herri guztiek autodeterminaziorako eskubidea daukate. Eskubide honen ondorioz beraien kondizio politikoa finkatzen dute libreki eta beraien garapen ekonomiko, sozial eta kulturalaz jabetzen dira”) bortxaketa sistematikoak eragiten ditu.

Autodeterminaziorako eskubide kolektiboa, askatasunaren kontzeptuaren modalitate espezifiko bezala, bere barrenean zuzentzaren edukirik esentzialenean kokatzen da: berdintasuna eta beste elkarbizitza demokratikoaren zenbait balore kardinalekin egokitasun orekatu baten ideiala osatzen du.

---

<sup>6</sup> ABOKATUOK. 26. Zka. 2006ko urtarrila.

Askatasun hutsa da, eta askatasun hutsa denez askatasunaren ametsaren eraikuntza historikoak suposatu zituen izpiritu inplikazio guztiak suposatzen ditu bere partez maila kolektibo batean: begirunea, zapalkuntzaren abolizioa batetik (gainezartze guztiak galkorrak direlako eta denon kalterako kontraekintza bortitzak sortzen dituztelako sinesmena); eta paternalismoaren gainditzea bestetik (norberak aukeraturiko gaitza beti beste batek erabakiriko ona baino hobe delako sinesmena).

Eta, behin autodeterminaziorako eskubideak baldintza demokratikoak ezartzerakoan (zuzentzaren baldintza demokratikoak) duen funtsezko garrantzia onartuz gero, eta bat bagatoz aforismo zaharrak dioenarekin zuzentza gizarte bakearen oinarria dela esaten duenean, baieztatu behar dugu autodeterminaziorako eskubidearen bortxaketa jatorrizko gogorkeriako faktore erabakigarri bat dela, erabakigarriena agian.

Honekin ez dut esan nahi inondik inora autodeterminaziorako eskubidearen onespena edo ariketa lortzeko bitarte bortitzak zilegiak direnik, jakina, baina ukaezina da nolabait ezin dela onartu bitarte bortitzen erabilpenari kritika autodeterminaziorako eskubidearen bortxaketa baten alde egotearen baldin badator, jatorrizko gogorkeria bat eta gogorkeria erantzule baten artean bereizketa bat egiten badugu behintzat (eta bereizketa hori derrigorrezkoa da bortizkeriaren balizko legitimazioari buruz azterketa bat egiterakoan).

Bakerazpenaren ezinbesteko osagaia da autodeterminaziorako eskubidearen errespetua dena dela, eta horregatik gogoratu behar da mundu elkarbizitza baterako oinarriak ipini nahi baditugu beste giza – eskubideen kasuan bezala honekin hitz eta aldarrikapenetatik ekintza eta bermagarrietara pasatu behar dela, Nazioarteko Elkartearen inplikazio handiago batera.

Esan dugu orduan eskubide hau zuzentza demokratikoaren zati esentzial bat zela, eta gehienetan ez dagoela indarrean, baina horrek ez zuela legitimatzen hura lortzeko erabil zitezkeen bitarte bortitzak. Horrela, gatazka politiko gehienen atzean dagoen helburu politikorik nagusia justifikazio objektibo baten at geldituko litzateke.

Baina gauzak ez dira hain sinpleak, zeren bateratzen baita hemen orain aipatuko dugun agente probokatzaileak sorturiko egiturazko bidegabekeriaren beste atal garrantzitsua, giza eskubideen bortxaketen eta beste erako errepresio bortitzen kontrol legal eta judizial eza alegia.

Horrela, autodeterminaziorako eskubidea bezala goinahi baten errebindikazioaren ariketa baketsuan errepresio bortitz bat baldin bada jasotzen den erantzun bakarria inolako irtenbide demokratikorik gabe, eta bortizkeria hori zigorgabe gera ez dadin bide legal eta judizialik ez baldin badaude, nire ustez objektiboki litekeena izatera hel daiteke kontraekintza bortitz baten zilegitasuna, azkeneko baliabide bezala betiere.

Eta egiturazko baldintza horiek ez dira printzipioz eman lezaketen hain subjektiboak: egon badaude unibertsaiki adostutako zenbait parametro zeinen arabera azter daiteke egoera onargarritzat har daiteken ala ez (bai edukien aldetik –nazioarteko itunetan aldarrikaturiko giza eskubideak-, bai prozesu aldetik –baliabide eta bermagarri nahikoak beraien betetzea gauzatzeko-).

Munduko gobernu gehienek hiltzen, torturatzen eta bortizki erreprimitzen dutela, eta demokraziaren gehiengoan sistemaz abusatuz gutxiengo etniko eta politikoak zapaltzen dituztela egia denez gero, norberak bereganatu behar ditu bakea lortzeko dagozkion erantzukizunak: Nazioarteko Elkarrekin, dagoeneko esan den bezala, estatuen kontrolean inplikazio handi eta serioago bat, gobernuak zibilizazio eta demokratizazio gutxiengo mailataranzko bilakaera, eta gutxiengoen kide konprometituek irekitasuna, proportzionaltasuna eta sen ona.

Arazo horiek dira “luzaturiko bortizkeria politikoaren arribideetan garatutako dinamika” goian idazten genuenean aipatzen genituenak, zeren esan ohi den bezala gogorkeria espiral bat baita, eta lehen aztertu ditugun zilegitasunari buruzko gaiak nahiz eta garrantzitsuenak izan gatazkari konponbide sendar bat emateko esertzerakoan, erraz ahaztu daitezke terrorismoak eta bere ekintza odoltsuek eragiten dituzten sentimenduen espiralean.

Horregatik da erakutsitako norabide horien bitartez soilik gatazkaren arrazionalizazioa litekeena bilaka daitekeela, norberaren erantzukizunen bereganatze eta irekitasun horiek hildako, odol eta irainen neurketa makabro horretatik, gizabanako pairamen gehiagotan sufrimenduaren oreka baten bilaketa horretatik atera gaitzaketenak baitira.

Horregatik da bortizkeriaren erabilera politiko edota publikoa (gure garai hauetan espero dudana bezala jadanik bortizkeria politikoen osagai gaindigarri batentzat jotzen baldin badugu behintzat, behin bere ulerkuntza ekintza politikoaren baliabide baliadun bezala errotik baztertu dugularik) erabakitzen eta zilegiarazten duen zuzengabekeri estruktural horren baldintzak aldatu ahal izateko jarrera humanista eta unibertsalista bat behar dela alderdi ezberdinetan, azterketa sakon eta konpartitu bat egiteko lehen, eta sistema juridiko – politiko bat eraikitzeke ondoren zeinean goinahi eta errebindikazio guztiengatik egindako borroka baketsua ahalbide dadin.

## URREZKO ZEKORRAK

Gizakien gauza eta erakunde oro denborarekin bere halakret mitologikoa hartzen doa, eta demokrazia ez da salbuespen bat. Sistema historian zehar garatzen joan zen heinean, bere sineskeri propioak erantsi zitzaizkion bere egiturari eta egun horietako zenbait sakralizazio maila ikutuezin batera izatera iritsi dira.

Batzuetan zera da kontua, garai batean zentzu betea zeukan arau edota hastapen batek gero gizartearen eraldaketan poderioz zentzu hura galdu arren prozesuan eskuratu duen balio sinbolikoarengatik dagokion testuingurutik at bere eragina zabaltzen jarraitzen duela, baina gehienetan arazoa hipertrofia kontzeptuala da, zuzenbide-estatu baten baitan eman behar den eskubide eta betebeharren arteko elkarrekintza arruntaz gain baldintza normaletan eskubide bat izan beharko lukeena pribilegio batean bilakatzen dela, beti arrazionalak ez diren zenbait inertzia historikoren ondorioz.

Azken kasu horretan, erakundeak babesten duen interesa gatazka batean sartzen baldin bada kontuan hartu behar diren bestelako eskubide, ahalmen edo eginbeharrekin (eta errealitatean gatazka horiek egunero gertatzen dira), nahikoa izaten da bere izena aipatzea subjektuen gogo demokratikoarengan ohiartzun magiko bat lortzeko interes hori nagusitzea ahalbidetzen duena.

Horren adibide ederra unibertsitate autonomia da, aro luze batean sortze, ikerketa eta irakaskuntzaren askatasuna eta objektibotasuna orduko botereen presioengandik estalpetzeko nahiean neke handiekin eraiki zena, eta gaur egungo herri normalizatuetan eraginkortasun, gardentasun- eta emaitzen-eza bidezko kontroleetatik ihesteko ia besterik ez dena erabiltzen.

Edo beste bat adierazpen-askatasunaren gehiegikerien aurrean erakusten den epeltasuna, adierazpen-askatasuna askatasunaren goreneko era bailitzan, edo gainontzeko eskubide demokratikoen iturria, izpiritu kritikoa lantzeko bere eginkizun politiko eta kulturalaz aparte elkarbizitzan oso azaleko efektua daukanean.

Edo alderantziz udal autonomia, administrazio ahulenak hurbileko interesen menpe uzten dituen eta kudeaketa publikoen zenbait gai mamitsuen trataerari behar den urruntasun teknikoa kentzen diona, argi mediatikoaren miaketatik ezkutatu, askotan.

Autoritarismo milakadek izu nahasi bat laga dute nonbait gure ariman eta orain oso zaila suertatzen zaigu gure fetitxeei uko egitea, gure demokraziak betiereko setiatzen dituzten indarretatik gordetzen dituzteelako intuizioa daukagulako, eta horrek zenbait arlo kolektiboren inguruzko zuzeneko eztabaida ekiditen den unetik demokraziaren funtzionamendu osoa eragozten du, sistema politiko bezala daukan ezaugarri nabarmenena murriztuz: irekitasuna.

## DEMOKRAZIAREN BAZTERRAK

Pentsamendu bakarreko sartzen ari garen paradigma honetan demokrazia hain bihurtu da egitura formal bat, botere politikoa osatzeko prozedura gero eta zorrotz era zehatzago bat, ezen ikuspegia galdu dugun zenbateraino produktu kultural bat den, elkarbizitzaren baitan gizakiak izan behar duen duintasunaren ingeraden marrazketa historiko bat, zeinean garai eta mendebaldeko herri bakoitzak marra edo kolore ñabardura bat erantsi duen.

Eta sistema juridiko formal bezalako ikuskera horrek arrisku handiak dauzka demokraziaren osasun eta gogortasunerako, horiek ez baitautza bere tresnerien funtzionamendu egokian, produktu kultural bezala desnaturalizatzen duten indar edota mugimenduen aurka eratu ditzakeen defentsetan baizik, behar denean bere egitura formalak desartikulatuz ere.

Izan ere printzipioz demokrazia batek argi eta garbi agertzen zaigun arren ideologiak toleratu eta aniztasuna bultzatu egin behar duela, herriaren erabakien araberrako botereen aldaketa baketsuak ahalbidetzeko asmoa egitan bete nahi badu, arazoa alderdi politikok bezala plazaratzen diren mugimendu erlijioso edota politiko totalitarioen aurrean planteatu behar den tratamendua definitzeko unean sortzen da, edo berez alderdi politiko demokratikoak direnen zenbait programa edota politika sektorial batzuen aurrean.

Demokraziak fenomeno kultural konkretu gisa zenbait mugapen dauzkalako bere integratzeko eta toleratzeko gaitasunean, bere izaera berak markatzen dituenak. Eta ez diogu muga horiek izan behar dituenik, badituela baizik, berezkoak zaizkiolako bere irautea ureztatzen duten iturrien irismena diren heinean: giro kritiko-zientifikoarena, alde batetik, eta giza eskubideena, bestaldetik.

Onartu behar al du sistema demokratiko batek alderdi edo mugimendu baten lehia hauteskundeetan bere helburuak antidemokratikoak direnean?, bere azpiegitura

kulturalaren aurka egiten dutenean edo sistema bera gainditzea dutenean xede bakarra bezala? Adibidez, zilegitzat hartu behar al ditu hezkuntza sisteman tesi ez kritiko-zientifikoak –esaterako, kreazionismo erlijioso- irakasteko proposamenak? Eta eskuineko edota ezkerreko ideologia totalitarioen aldeko erakundeen parte-hartze politikoa? Eta mugimendu erlijioso integristen parte-hartzea?

Kudeaketa publikoa zuzentzen duten kargu politikoak izendatzeko hauteskunde libreetan parte hartzeko oinarritzko giza eskubide bat izanik, ez da giza eskubide bakarra, ezta gainontzekoak baldintzatzeko legitimazio berezirik lezakeen plataforma bat ere.

Orain arte giza eskubideak eta demokraziaren beste hastapen garrantzitsu batzuk abagaduneko gatazka politikoengatik aterpetzeko gehien erabili izan den teknika konstituzionalizatzea izan da: giza eskubide eta hastapen horiek aitortzen dituzten nazioarteko itunekiko atxikimendua aldakorra denez gero, eta benetako babes askotan ez dutenez ziurtatzen, barne ordenu juridikoaren gorenko arauaren baitan sartzen dira eduki horiek, eta aldatzeko edota indargabetzeko prozedura korapilatsuak ezartzen dira gehiengo kualifikatuak suposatzen dituztenak.

Formula horrek, halere, zenbait ahultasun ditu:

a) Jartzen diren oztopo guztiak berez gaindigarriak direla, ez dagoelako zuzenean edonolako erreforma konstituzional galarazterik eta beraz zailtzea besterik ez da egiten, eta hauteslego gehiengo aski batek beti dauka hastapen eta eskubide horiek deuseztatzeko aukera.

b) Benetan gorenko babes merezi duten eskubide eta hastapen horien alboan estatu bakoitzeko botereek maiz beste tradizio batzuk sartzen dituztela konstituzioan, maila berean edo antzeko batean, hala nola estatuaren formari buruzko edo lurralde antolaketari buruzko aukerak, eta horrek beste edukinen autoritatea ahultzen du zalantzarik gabe.

c) Finean defentsa pasiboa eratzen dutela balizko eraso baten aurka, eta aipatzen dugun derrigorrezko defentsa aktiboa izan behar du benetan eraginkorra izan nahi badu.

Jakina ilungune batzuk agertzen direla berehala, kontzeptuen azterketan beti gertatzen den moduan, “demokratikoa” eta “antidemokratikoa” mugatzeko orduan, edo “kritikoa” edo “zientifikoa” zehazki zertan diren norik erabakitzen duen asmatzerakoan. Baina horrek ez du esan nahi kontzeptu horien esangura orokorra eta demokraziaren edukinen elikatzen daukan funtsezko eginkizuna antzematea ez dagoenik.

Eta botere eta gehiengo demokratikoen, gehiengoa diren artean eta beranduegi den baino lehen, ekintza proaktiboak burutu behar dituzte giza eskubideak (lehenengo gradukoak zein bigarren gradukoak –etxebizitza, heziketa, osasuna... eskubide horien gauzatzeko erabil daitezkeen baliabideen arabera-) murriztu nahi dituzten edota demokrazia eusten duen kultura zientifiko-kritikoa azpian nahi duten joeren aurka, beren sisteman politikoki parte hartzeko (sufragio pasibo moduan behintzat) eskubidea suspenditu edo ezeztatu ere behar denean.

Finean demokraziak ezaugarri komun bat dauka diren eta izan diren bestelako sistema politikoen: bere eginkizun nagusia irautea izanik, bere funtzionamendu irizpide, lehenetasun eta betebeharririk funtsezkoena bere barneko hezurduraren osotasun eta osasuna mantentzen saiatzea dela, kontserbazio eta trinkotasuneko printzipioak alegia, eta demokrazia Gizateriak sortu dituen elkarbizitza antolatze bide liberal eta zabalena izateak ez du suposatzen demokrazia batean denak balio duenik.

Zeren eta, esaten genuen bezala, demokrazia ez baita ikusi behar mandatariak hautatzeko metodo huts bat bezala, motore konplexu bat bezala baizik zeinaren erregaia bere mendebaldeko substratu kultural kritikoa den. Etengabeko sapa horren ezean, eta historian zehar eraikitako erakundeak eta lorpen formalak gorde arren, egitura horiek garatzen dituzten hormona programatiko eta proiektiboak eten egingo liriateke, eta sustrai edota sapa gabe ez dago zuhaitz bat hazterik ezta bizirik irauterik ere.

## AUZI ERLIJIOSOA

Pasa den hamarkadatik, eta gehien bat inmigrazioaren fenomenoaren eraginez, gai berri bat sartu omen da eztabaida politiko orokorreko agendan: auzi erlijiosoa, hau da, gure sistema juridiko politikoa bestelako sinesmen erlijiosoak gurean integratzeko asmoz nola egokitu behar dugunaren gaineko hausnarketa eta, horrez gain, ustezko errealitate multikulturalen aurrean elkarbizitzarako zernolako ereduak eratu behar denari buruzko polemika.

Horrela, postmodernitatearen izenean eta atzeko atetik, berrehun urte atzeratzen saiatu nahi da gizarte garatuen eboluzio ideologikoa eta, komunismoa zenbait aspektutan gainditzeak utzitako hutsunea bete nahian (horrenbeste aspertu baikara), laborategiko esperimentu batean sekularizazioaren prozesua berpiztu eta Ilustrazioaren baloreak kolokan jarri, berriro.

Ez da hori zuzenean planteatzen, jakina, megaeboluzio edota hiperilustrazio baten gisarako interkulturalitatea eredu berri bezala baizik, zalantzan jartzen ez odol ibaiak kostatu dituzten oinarrizko eskubide eta askatasunak berez, ez, erakunde horiek mendebaldekoak ez diren gainontzeko gizartei inposatzeko zilegitasuna baizik, azken hori jarrera etnozentrikoa (inperialista ez bada) delakoan.

Beste era batera esanda, azkenean egiten dena zera dela, balore, eskubide eta askatasun haien unibertsaltasuna ukatu, eta nola izaera unibertsal edo etniko hutsa hori neurtzeko irizpide objektiborik ez dagoen, subjektibitate osoz sortzapean europeartzat ematen dira, ondoren beste ideia eta erakunde kultureletako "mundu-lapiko" bertara botatzeko.

Baina horren ikuspuntu garai eta sofistikuak funtsezko zerbait ahaztu egin du, auzi osoaren gakoa dena eta Ilustrazioaren ondoriorik argiena izan zena, alegia, tolerantzia ezin dela euskarritu erlijioekiko elkarrizketa batean, ez dagoelako horrelako elkarrekintza bat zabaltzerik pentsamolde batekin egia buruzko erabat ezberdina den

kontzeptu bat daukana (erkidego ireki batean, egia beti ere eraikitzeko aribidean dagoen zerbait da, definizioz), eta tolerantzia eta botere demokratikoekiko elkarrizketa hori beraren ikuspen interino eta instrumental hutsik daukana, erlijioen berezko izarea proselitistarengatik eta integrismorako daukaten etengabeko joeragatik, gizartean erlijio zehatz bat nagusitzen den heinean azaltzen dena.

Finean, galdera zera da, daitekeena ote den integriziorako harreman demokratio bat finkatzea harreman horien partaideen "mintzaira" ez denean baliokidea, eta bakoitzaren xedeak eta joko-arauak ere guztiz beste maila batekoak direnean.

Demokrazia batean erlijioen praktikaren trataera kanpotik planteatu behar delako, ez goitik, baina bai kanpotik, edonolako eskubide erlijiosoak ez direlako eskubide politikoak eta ez dute zertan inolako eragin politikoak izan beharrik, eta elkarbitza antolatzen duen legalitate arruntak -herritarrek oro har sortu eta herritarlegoari oro har zuzendutako arauak diren neurrian- lehentasunak izan behar du beti edozein ohitura erlijiosoren ginetik, erkidego politiko bera irautea ahalbidetu nahi bada behintzat.

Unibertsaltasunari buruzko eztabaida ez delako inoiz amaituko agian, baina ez da kasualidadea eskubide erlijiosoen berpizkunde hori eta multikulturalismoaren moda erlijioen integrismoko (islamikoa gehien bat, baina kristaua ere bai, eta judaiko, hinduista eta beste sinesbideetan ere) uhin baten garaikideak izatea, eta esparru dogmatikoan eztabaida luzatu arren praktikan bi faktore nabaritzen dira:

Alde batetik polemika oso abagadunekoa dela, etorkinak integratzeko politiken diseinuan eta horren baitako berrikuntza-azalpenen harira (eta benetako etorkinak beti integratzen dira epe luzera, hori bultzatzeko gizarte politika berezirik gabe ere), eta postkolonialismoaren kontzientzia txarraren testuinguruan, multikulturalismo bera barneko korrante zeharo etnozentrikoa izanik, beste kultureei beraien eremuan tolerantzia bera eta elkarrekikotasuna exijitzen ez zaien eta moldaketa gizarte garatuek egin behar dutela suposatzen den momentutik.

Bestaldetik, mendebaldeko kulturak sortutako balore, eskubide eta askatasun demokratikoak kanpoko herrietako gizaki gehientsuenek nahita aukeratzen eta asumitzen dituztela helburu gisa, beraien eguneko bizitza hobetuko dutelako esperantzan, eta aldentze etniko edota erlijiosoa defendatzen dutenak nortasun ikurrak aurkitu nahiean askotan gutxiengo boteretsu eta autoritarioak izaten dira, eta hori errealitate historiko bezala egongelako gogoeta guztien gaineratik nabarmentzen dela.

Egia da gure erakunde politikoak geure ohitura eta osagai etnikoez kutsatuta daudela, eta bertako erlijioek zenbaitetan egiten duten presioa gaur egun ere ez dela makala, eta horrek etengabeko arreta eskatzen duela ere bai, baina nolabait eztabaida politiko orokorra ez baldin badugu nahastu nahi aspaldin gainditutako gaiak artifizialki berriz sartzen saiatuz, jarduteko irizpide oso argia agertzen zaigu: gutxiengoak integratzeko ez zaie inoiz legeria arruntaren aplikazioa baldintzatzeko ahalmen berezirik onartu behar eta, orokorrean, aurretik errekonozituta zeuden eskubide erlijioso besterik eman.

Horrela, egiazko integraziorako bideak eraikitzeaz gain balore laiko et oinarritzko eskubide eta askatasunen inguruan, prozedura integratzaileak indar atzerakoi bat izateari utziko dio, alderantziz gizarte garatuen sekularizazio-mailak haraindiago eramanez ere.

## DISKRIMINAZIO POSITIBOA

Badago pekatu bat gure aroarekiko edonori barkaezina irudituko litzaiokena, XX. mendeko utopia basatien bueltan, injeniaritza soziala alegia. Ba ez, oraindik egiten, planteatzen eta defendatzen da, fede onez jakina, baina XX. mendeko sarraskiak ideial altuenen izenean burutu ziren moduan.

Erreformak proposatzen direnean legerian eta zerbitzu publiko eta pribatuak funtzionatzeko formuletan, eta bereziki gutxiengoan edota jeneroz, arrazagatik edo gizarte-jatorriagatik historikoki diskriminatuak izan diren taldeen trataerari heltzen zaionean, berehala hasten da giro politiko eta juridikoetan pisu kolektibo eta balbulen presioen oreken terminotan pentsatuz, gizabanakoaren perspektiba absolutua galduz, ohartu gabe ere.

Eta ez du horrek eskubide kolektiboen izateari buruzko eztabaida betea osatzen, bestelako eskubide kolektiboak -gehien bat estaturik gabeko nazioei errekonozitzen zaizkienak eta, nagusiki, autodeterminaziorako eskubidea- ez direlako zalantzan jartzen. Baina bai ekarri nahi dela gogora kultura europarreko erdiguneko kontzeptu bat sofisten (Protagorasen) garaitetatik eta demokraziaren muin muinean dagoena, gizakia gauza guztien -eta, bereziki, justizia eta balore sozialen- neurria dela.

Zer mailatako zuzentza-beharra asetzen dugu diskriminazio positiboko politikak tresnatzen direnean, adibidez zenbait gizarte-onura eskuratzeko herritar multzo batzuk pribilegiatzen direnean. Ez al litzateke posible irizpide bera erabiltzea nazio bateko belaunaldi batek egindako krimenengatik ondorengo belaunaldietan zigortzeko?

Politikan edozein gairi buruz mota askotako hurbilketak egin daitezkeelako, ideologikoak zein independienteak, objektiboagoak edo subjektiboagoak, baina badago ikuspegi bat ideologiengainetik altxatzen dena eta diskurtso politiko oro argitzen duena, are gehiago XX. mendearen ondoren: humanismoa, elkarbizitza publikoak sortzen dituen arazo guztiak gizabanakoaren perspektibatik ulertu behar direla proposatzen duen

jarrera bezala, eta betiere gizabanakoa errealitatean den moduan aintzat hartuta, bere inguruneko baldintza eta mugapen guztiekin etengabeko borrokan bizi den gizaki hilkor gisa.

Eta politikako ikuspegi humanista horretatik ez dago diskriminazio positiboarentzako lekurik, jatorrizko arazoa ez konpontzeaz gain, aurreiritziak sustatzen duelako (benetako balore aldaketak gizartearen baitan heziketa eta arau penalen eskutik datoz bakarrik), disfuntzio eta bidegabekeria ugari eragiten dituelako.

Izan ere, diskriminazio positiboko neurriak inposatzeko alde zuzenetik eta prius logiko bat bezala gizartea segmentatu egin behar da, teorikoki bada ere, talde ezberdinetan zatitu eta talde horietako bakoitzari paper bat esleituz interesatzen zaigun kontuaren trataerarako; gehienetan batzuei zapalduen edota zapalduen ondorengoan papera emanaz, eta besteei zapaltzaileen edota zapaltzaileen ondorengoan papera emanaz.

Argi dago segmentazio, zatiketa eta paper horiek oso aldakorrak direla eta maiz aldatzen direla gizartearen barneko errealitatean historian zehar, erakundeak eta baloreak aldatzen diren era erean denboraren eta eboluzioaren poderioz, baina diskriminazio positiboko neurriak hartzerakoan aldaezinak eta absolutuak bailiran hartzen dira kontuan, eta konpentsatu nahi diren gaitzen erantzukizuna ere absolutua, estigmatikoa eta belaunaldiz gairikoa bailitza.

Horrela, ideal altuenen izenean diskriminazio bat inposatzen da baztertuei bigarren aukerarik uzten ez zaielako kontzientzia osoarekin, eta horrela beraien eskubideak (eta beraien eskubideen artean funtsezkoenetako bat, berdintasunekoak) urratuz, eskubide horien jabeak ez baitira gizartearen segmentoak edota inolako taldeak, gizakiak baizik.

Sentiberatasun humanista erakusten al du irizpide gehienetan arbitrario batzuen arabera ustezko zapalduen ondorengoak bezala identifikatzen direnak promozionatzea

gainontzekoak baztertuz? Zer zuzentza-zentzu edo behar asetzen dute neurri haiek?  
Estetikoak? Gizarte simetriarena? Historiari buruzko kontzientzia txarreko gogoetak?

Benetan jarrera humanista al da diskriminazio positiboa?

## BIRGIZARTERATZEAREN FABULA

Ilustrazioak eta Iraultza Frantsesak ernaraziriko mitologiaren gainera, herriaren jakinduriaz kimeren harandiago oraindik, badago fantasia bat iraunkorragoa suertatu dena, Rousseauk edestutako gizakiaren sortzetiko ontasunarena alegia, ez dirauena bakarrik konbentzimendu moral gisa (frogaezina eta espekulatiboa erabat), batez ere sistema penalen filosofiaren abiapuntu moduan baizik.

Baina berez hipotesi antropologiko nagusi moduan zeukan eta daukan eragina biderkatu egin da Antzinako Erregimenaren erakunde baten indarraz, graziako eskubidea hain zuzen ere, boterearen erakusgarri nabarmenetakoa izanik garai guztietako politikariei oso kutuna zaiena, nahiz eta gaur egun absolutismoaren erritu gehienak galdu dituen birmoldaketa posmodernoaren ondoren, erretorikaz freskatu duena.

Agerikoa baita autu honetan zer aldea dagoen herritargoaren interesen eta klase politikoaren interesen artean, gatazka hori egindako arau-hausteen aurrean zigorrak ezarri eta betearazterakoan demokrazia batean biguintasunak daukan eginkizun imaginarioaren azpian datzan arren.

Izan ere, alde batera utzita sistema penalak izan dezakeen gailentasun morala (erru erlijiosoan erroa daukana), hasiera batean edozeinek pentsatuko luke zigorren betekizun garrantzitsuena gizarte garatu batean herriaren zerbitzurako segurtasun neurriak izatea dela, hau da, elkarbizitza antolatzeko demokratikoki finkatutako legeak hautsiz besteak kaltetzen dituztenengandik elkarbizitza hori bera babestea eta, ahal den heinean, kalteak etetea edo murrizten saiatzea.

Horrela eta interes orokorra kontuan harturik, bergizarteratzea edo delitugileren tratamendua sistema penalaren xede moduan lehenengo horren menpe eta subsidiarioki agertuko litzaiguke, zigorra askatasun-gabetzea denean neurri horri edukin zentzudun bat emateko behar baten moduan planteatzen dena, baina ez hori baino lehen.

Bistakoa denez hurbilketa aseptiko horrek ez du lehenesten kriminalen tratuko ardua gizabidetsuak ezta beraien berreziketa edota hazkunde pertsonala beti gizabidetsuagoak diren beste herritarren pertsonak eta ondareak babesteko arduren aurretik, baina berez ez dago zertan lehentasun hori ezartzeko arrazoi berezirik eta, batez ere, ez dago gizarte-erakundeen funtzionamendurako lehentasuna beharrezkoa egiten duen ezer.

Edo bai?, mendebaldeko gizarte postmodernoetan nabaritu al da behar hori? Ba bai, agertu omen da, gizarteko talde zehatz batentzat bakarrik, politikarientzat, eta era aitorrezin batez, baina behar hori zabaldu egin omen da egungo demokrazia mediatikoetan.

Zergatik? Zer onura ekar dezake jarrera horrek talde politiko ezberdinei? Ba bi baliagarriatasun garrantzitsu, bata sustantiboa eta bestea adjektiboa, menturaz elkarrekin kontraesan betean daudenak, baina funtsean asmo berari dagozkionak.

Alde batetik delituen aurreko zigor erantzunaren moderazioak kutsu progresista dauka oraindik eztabaida politiko orokorrean, eta beraz horren alde argudiatzeak eta ekiteak berehalako efektu mediatikoak, estetikoak erabat, eragiten ditu bai nazioartean bai estatu barneko iritzi publikoari begira, boterearen itxura aurrerazale eta posmoderno bat barreiatuz.

Baina beste alde batetik estatuko botereen ahalguztiduntasuna azaltzen du biktimen txikitasunaren aldean. Ez dezagun ahaztu zigor-sistemen jatorria gizarte primitiboetan biktimen pairatutako kaltearengatik ordain bat eskatzeko eta inposatzeko eskubidean dagoela, eta horren gainera, historian zehar, zigortzeko sistema publikoak eratzen joan zirela menderik mende agintarien eskutik, bake sozialaren interesean bortizkeriaren eta portaerak baloratzearen monopolioa eskuratzen joan zirenak.

Prozedura hori burutu zen enperadorego eta monarkia absolutistetan, erregeak edo enperadoreak bere agindupeko lurretan zuzentza ororen iturri (goiko zuzentzarekiko bitartekari papera asumitzen maiz) bezala nagusitzeaz gain, barkatzeko ahalmena

bereganatu zuenean boterearen ikur baten moduan, denboraren poderioz gero eta garrantzi gehiago hartzen joan zena absolutismoaren sinbologian agintarien eta sudbitoen arteko urruntasuna zabaltzen zen heinean, menpekoaren zuzentza beharrak apalduz eta irrigarri utziz.

Graziako eskubidearen izena hartu zuen ahalmen hark, eta bi eginkizun sinboliko politiko betetzen zituen absolutismoaren egitura erreferentzialean: lehenik aipatu duguna, hierarkia erakustea zuzentza ematearen zorizko osagaiak azpimarratuz, eta ordaina eskuratzeko benetako eskubiderik ez zegoela adieraziz; eta bigarrenik legea edo lege eza subiranoaren borontatearekin identifikatzea, bera edozein zuzentzako irizpide objektiboren (zuzentza gizarteko elkarbizitzako balorerik funtsezkoena izanik) gain zegoela eta goiko zuzentzari kontuak eman behar ziola bakarrik argi utziz.

Gaurko erakundeetan, graziako eskubideak bi ondorengo laga ditu, zigorrak barkatzeko botere exekutiboak daukan indultu-eskumena, eta zigorren mugaketa arauetan. Baina biek jatorrizko nahi autoritario berari egiten diote mesede, herritarraren eskubideak zapaltzea estatuaren handitasuna baieztatzea hain zuzen ere, eta zigorren eraginkortasunari jaramonik egin gabe.

Azkenean, gaurko gizarte mediatiko eta mamigabean, eta baldintza politikoak kontuan izanik, ez da harrizkeoa zigor sistemaren biderapen propagandistikoak, funtzionala baino (kolektibitatearen justiziako eskakizunei erantzuna emateko zentzuan), baina jendeak jakingo balu paratze progesista haien atzean zelako aztura zahar eta autoritarioak dauden, eta zer nolako interesak dauden jokoan...

## MUGA ANGELUA

Egungo jarduera politikoan, demokraziaren baitan garatu ditugun arau eta prozeduren elkarrekintzaren ondorioz, eta merkataritzako kutsu batekin ere, kontu publikoetako kudeaketa gobernuek eta administrazioek herritargoari egiten dion zerbitzu bat bezala kontsideratzen da.

Ingurugiroaren gaiaren kasuan zehazki, eta garapen iraunkorrari eta baliabide naturalen erabilpen arduradunari dagozkienez, gidari politikoen eginkizuna iritzi publikoaren gurak asetzen saiatzean datzala dirudi, gura haiek bi motatakoak direlarik nagusiki: hurreneko beharrak, alde batetik, eta etorkizunari begira hartu beharreko egiturazko neurrien hautematea, bestetik.

Hurreneko behartzat hartzen ditugu ur, aire eta lurreko garbitasunean gutxieneko kalitatezko estandarrak mantentzea, eta parke eta gune ireki handietarako iristea izatea, eta beharrezko neurriak aintzakotzat hartuak direnak planetaren kontserbaziorako orokorrean eta era gandutsu batean (publiko ezikasiak daukan ikuspuntu bakarra). Parametro horiek bizitza kalitateko osagaiak izanik, kontzientzia lasaitasuna barne.

Orain, hauteskunde-truketik at irizpide zientifiko objektiboen arabera onartu beharreko arauak atxikitzeke agintariak ez daukate bestelako pizgarririk, ez premiarik, ezta zertan gogoan hartu beharrik ere, gehien bat epe luzeko efektuetako ekintzak izaten direnean eta epe motzeko interesen pribatu eta publikoen kaltetan gain hartzekoak.

Jakina auzia konplikatzen dela eztabaida zientifikoan beti posible delako tesi bat edo bestean aterpetzea inolako neurrien hartu eza, baina gai batez gutxieneko adostasun bat dagoenean, eta hortaz giza – aribide bat kaltegarri bezala argi eta garbi identifikatzen denean baliabide naturalak era ez iraunkor batez eralgitzen dituelako edo zuzenean suntsitzailea delako, nork edo zerk presionatuko al ditu gobernatzaileak jokoan dauden interesak -maiz ekonomikoak direnak- sakrifika ditzan?

Printzipioz batek pentsa zezakeen hutsune hori nazioarteko erkidegoak beteko lukeela, babesteko dauden interesak giza – kondizioari hain funtsezkoak eta jatorrizkoak zaizkiolarik (giza – eskubideen parekoak omen), baina gure garaiko nazioz gairazko erakundeek ez daukate maila horretan estatuak behartzeko behar beste ahalmenik.

Eman beharko litzaizkieke? Azkenean tankera honetako planteamenduek beti daukate desbideratze teknokratikoaren arriskua, demokratikoki zilegi diren erabakiak hartzeko sistemak gairaditzekoa eta herriaren borontatearen adierazpena burokrazia-aginduez ordezkatzekoa.

Baina bestela ba al dauka herritargoak berehalakoak ez diren arriskuak baloratzeko, kontuan hartzeko behar diren tresnak, argibideak edota ardura. Helburu nagusia baliabide naturalen erabilpen iraunkorra bermatzea izanik, suposatuta behar al zaio herritargoari erabilgarriak zaizkion onura jakinetatik haraindi begiratzen edo ikusten duela.

Egia zera da, estatuen barruko iritzi publikoen manipulazio edo arazoaz bere sakoneran arduragabekiaz, edo hurbileko garapen ekonomikoa lehenesteagatik, ingurugiroaren degradazio atzeraezin bat frogatzen baldin bada, derrigortzeko nazioarteko babes delat politika errausle hori gelditzeko formula bakarra, hori hein batean berarekin ekarri arren demokraziaren gairatik zenbait gair badagoen zeinetan ekintza nahitaezkoa den era batean edo bestean.

Behar denean behar da. Haatik, batzuetan irizpide teknikoek agintzea bidea bada ere arazo teknikoak aurre egiteko objektibotasun eta ikuspegi zabal egokiekin, argibideko asimetriak eta inplikazio falta albo batera utziz, onartzekoa da ere bai eskarmentu historikoak eskaini digun beste egi bat, demokrazia sistema ireki bezala delat gairte gairien azterketa objektibo eta ebolutiboa ahalbidetzen duen antolakuntzako aukera bakarra, hain zuzen ere.

## AKATSA

Behin lagun batek zera kontatu zidan, izeba bat zeukala umezaroan ezin zuena jasan, beti agintzen zebilelako eta aiurri txarrekoa zelako. Orduan berriz, bera gizon heldua izanik eta izeba atso bat, begikoa zuen oso, gainbeheran bere alde ahula ikustera pasa baitzen.

Batzuetan pentsatzen dut ea antzeko zerbait ez ote den gertatuko guregan Espainia ideiaren inguruan, azken mende honetan nortasunari buruz egin den hausnarketaren baitan (eta hein handi batean Euskal Herriak pairatu duen errepresio politiko eta kulturalaren ondorioz) Espainiari estatu boteretsu eta zapaltzaile bezala leporatu diogun nolabaiteko rolaz. Ez naiz itxura hori gehiago edo gutxiago justifikatuta dagoenez ari, hori arrazionaltasunaren esparrura baitagokio, mito horrek (mitoa baita) eragiten digun jarrera hartze sentimentalaz baizik.

Izan ere, partaide izateko sentimendua, edo alteritatearena, emozional jatorriko aukerak dira beti, batak besteak bezain errespetagarriak, baina horrez gain norberaren ideologiak ez gintuzke erakundeen benetako izaera politiko eta pisu historikoaren ikuspena itsutu behar.

Eta Espainia ez da, mail horretan, Madrilen ezagutzen. Espainiaren kimera bere nazio eta eskualdeetan, bere herri eta jende anitzetan loratzen da orkidea bitxi eta delikatu baten antzera, eta bere sustrai sendo eta finenak Gaztela eta Aragoiaren lurretan dautza, bai, baina bere petalo kolordunek Herrialde Kataluniarrei ematen die itzala, Galiziari, Andaluziari, Kanariar Irleei...

Lore makala da, egarri askorekin eta eguzki urriarekin hazten dena, kontingentzia bat, zoriaren inguruabar bat, ustekabekoa eta hauskorra, historiaren bihurtze bat, Mendebaldeko fraktal bat; eta mundu honetan iragankorra den oro preziatua da.

Perspektiba historiko ezak eta kijotismo ideolojikoak enbor bat ikusten du zurtoina dagoen lekuan, eta alde guztiek (batzuek asmo batekin, eta beste batzuek beste batekin)

estatuaren izen ponposoa jartzen diote herrien eta jendeen eta lurren inoizkako topaketa honi, baina Espainia ez da estatua, finkatuta dagoen status quo baten zentzuan behintzat, erreakzionarioki defendatua izan behar dena edo ikuspegi iraultzaile batetik oldartua, abentura bat baizik, etengabeko krisialdian garatzen den proiektu utopiko bat.

Bost menderen buruan eta gatazka askoren ondoren Espainiaren zama bat bezalako kontzeptua nagusitu da, batzuek inposatzeko eskubide eta ahalmena izatea uste dutena, eta beste batzuek sorbaldaren gainean eraman behar dutena askatu arte, baina gutxik sentitzen dute Espainia ardua bat bezala, jakina ez dena ez beharrezkoa ez komenigarria ere sikiera, baina agian denon baitan nonbait datzana, izebaren hilobiaren aurrean egon arte sentituko ez dugun arren.

## HECHO DIFERENCIAL

Mundu juridikoan, zuzenbide-estatu batean behintzat, non legea ez den beti era berdinean aplikatzen egoera orotan, baina non bai onartzen dela hastapen gisa antzeko egoerei legeak antzeko erantzun bat eman behar diela, trataera berezi bat eskatzen duten kasuei beti bilatzen zaie justifikazioa edota justifikazio eza.

Egungo Espainiako sistema konstituzionalean esate baterako, estatu autonomikoa eratzean, trataera berezi bat eskaini zitzaion gerra zibilaren aurretik Errepublika garaian autonomia-estatutu bat plebiszitu zituzten lurraldeei. Eta hori izan zen hecho diferencial auziaren abiapuntua, nonbait, jatorri hertsiki juridikoko eztabaida bat baina estatuaren autonomien egituraren diseinu simetrikoez elkarren arteko tentsioak gainditzeko nahian identifikatu nahi zituena ea zeintzuk ziren trataera berezi edo pribilegiatu bat eskuratzeko nortasun adina (izaera nazionala, hain zuzen ere, kontzeptu hori ere erabili nahi ez arren) frogatzea zeuzkaten elkarrekin.

Batzuetan kondairara jotzen zen, baina gehienetan alferrik, Espainiako antzinako erresumen multzoak ez baitzuen islatzen ez oinarritzen ez arazo nazionalak ezta XX. mendeko fenomeno identitarioak. Beste batzuetan kulturara, hizkuntzara hein handi batean, baina hori ez omen zen nortasun nazional maila neurtzeko irizpide aproposik, zenbait konpetentzia hezkuntzaren esparruan emateko haraindiago.

Ez da erraza hor irizpide objektiboak aurkitzea, politikan ez baita normalean kanpoan bilatu behar eremu politiko berari dagokiona eta bere baitako muina dena, hau da, jarrera eta proposamen politikoaren osatzea eta artikulatzea (konstituzionalak barne), jarraikorrak direnean herriaren nahi edo behar bat erakusten dutenak legeko sistemak ase behar dituen logikoa eta demokratikoa denean.

Baina Euskal Herriaren kasura gatozenez hausnarketa horrez gain ezinbestekoa zaigu hecho diferencial delako horren osagai etnikoa nabarmentzea, nortasun kultureko

gutxienez 15.000 urte ez direlako alferrik. Historian zehar Euskal Herriak, Europako igaroleku batean kotatuta (Iberiar Pentsilutatik edo Penintsularako migrazioei dagozkienez bederen), bere jatorrizko eta berezko kultur ondarea gorde izan baitu indoeuroparren asimilatzeke etengabeko presioen artean (herri bakarra izanik European horrelako bizirauteko gaitasuna erakutsi duena).

Ziuraski beste adibide bakar bat dago Europaren historian herri batena horrelako atxikimendu bat azaldu duena herri bezalako bere nortasunari, judutarrena, baina horien kasuan elementu erlijiosoa izan omen da nagusi. Gurean berriz, kultura, hizkuntza, nortasuna finean.

Errealitate hori kontuan izanik, ez da harrizkoa azken garaietan asimilazio proiektu guztiak (Espainian gehien bat XIX. mendean estatu liberala eraikitzen hasi zenetik) porrot egin izana, baina eskarmentu horiek izan arren asimilazio proiektuak plazaratzen edo gauzatzen saiatzen dira behin eta berriro gure egunetan ere.

Ez al dira kimerikoak? Ez al daude alde zuzenetik huts egitera kondenatuta perspektiba historiko objektibo pixka batez aztertzen dituenarentzat?

Ez baitirudi oso zaila ondorioztatzea joera ideologiko ezberdinen gainetik, arazo identitariora irtenbide eman diezaioken aukera bakarra zera dela, euskera eta euskal kulturaren gordetzea, haztea eta aberastea bermatzen duen artikulazio politiko bat planteatu eta burutzea.

Eta oraingo gure kultur politiko mendebaldirrean horrek diskurtso nazionalera garamatza nola edo hala, estatu baten ezean benetan nortasun kulturalaren bizirautea ahalbidetzen duen erakunde bakarra estatus nazionalaren errekonozimendua baita, estatus horrek berez eta derrigorrez autodeterminatzeko eskubidea dakarrelarik. Ez da formula berria ez berritzailea (ez dauka eztabaida publikoan hain efektista suertatu ohi den inolako kutsu postmodernorik), baina bideratu litezkeen artean gatazka gainditzeko eta nortasuneko auzia behin betiko agenda politikotik ateratzeko tresna eraginkorrena bezala agertzen da gero eta gehiago.

## SABINO ARANA

Jatorrizko euskal abertzaletasunak espainiarra kultura barbaro eta atzeratu baten gisa estereotipatzen zuen, eta frantziarra gune arrotz eta zentralista baten moduan. Hein batean euskal kulturaren muineko arazoa, tamainakoa eta proiektio urriarena termino erlatibotan alegia, bi esparru horien eraginari leporatzen zioten.

Eta hein batean egia da, baina ez edonolako azpigarapen bat kutsatzen ziotelako euskal tarteari orduko bidegile abertzaleek susmatzen zuten bezala, alderantziz baizik, euskal kultura Errenazimentutik hona izan duen garapen eta proiektio gairak beharreko oztopo nagusia kontrakoa izan baita hain zuzen ere, bi megazibilizazioen artean - espainiarra eta frantziarra. estutua izan dela.

Espainia Europako estatu zaharretakoa baita, eta egitura konplexuenetakoa izan duena betidanik (XIX. mendeko zentralismo liberala iritsi arte) gero gainbehera etorri zena Primo de Rivera eta Francoren diktaduretan XX. mendean.

Horrela, munduko hizkuntzen artean indartsuenetakoa bik, bi kultur potentziek -aldi berean egun bi ekonomia erraldoi direnak- euskal kultura galkatu egin dute.

Azterketa eta irizpen akats hura ez zen makala izan, ezta integrismo erlijiosoa, modernitatearen aurreko jarrera errefraktarioa edota, gehien bat, arrazakeria, baina guzti hori kontuan izanik ere, zentzua al dauka Sabino Aranaren pertsona eta idazkien inguruan komunikabide espainiarren interesak eta batzuetan obsesioak ere? Ez al dira apur bat anakronikoak suertatzen?

Aldizka badirudi hedabide horiek Sabino Arana eratzailaren pentsaeran euskal abertzaletasunaren izaera osoa eta gakoa aurkitzen dutela behin eta berriro, eta egia bada mugimendu abertzalearen ideologia ezin dela ulertu Aranaren planteamenduei erreparatu egin gabe, beren testuinguruan jakina Europako nazionalismo

erromantikoena dena, ez dirudi haatik jarauntsi hark abertzaletasunaren geroagoko bilakaera demokratiko eta humanistak gehiegi lastatu zituenik.

Espania mailan XX. mendean aritu ziren beste ideologiek erkatuz ere, ez du ematen horietako batzuen jatorri eta jite kosmopolitek jito totalitarioengandik babestu zituztenik, eta praktika politikoan askoz ere intoleranteagoak izan dira.

Jakina horrek ez duela ontzen edo garbitzen Sabino Aranaren argudio gehienak egun eragiten diguten gaitzidura, gehien bat jarrera arrazista hutsei dagokienean, garaiko erromantizismoarekin loturiko "arrazaren" kontzeptu ia liriko batean (XX. mendeko holokausto eta sarraskien ondoren hautematen zaila suertatzen dena) errotuta egon arren sistematikoki mutur onartezinetara zertu zuena, baina guzti hori kontuan izanik ere bere pertsona eta lanaren balorazio orokorra ikuspuntu kontua da neurri handi batean.

Izan ere bere ekarpen nagusia zera da, euskara eta euskal kultura aintzat hartzea, babestea eta defendatzea merezi duela plazaratzea, eta historiaren mareak eraman ez dezan zerbait egin behar dela aldarrikatzea, baina horrek, euskal kontzientzia nazionalaren lehenbiziko artikulazio edo formulazioa suposatu egin zuena, ez du balore unibertsalik sortzen edo islatzen, sozialismo edo liberalismoaren diskurtsoek egin zezaketen moduan, eta horren ondorioz ekarpen hori ikusgarria zaie soilik abertzaleei, ez iritzi publiko zabalari.

Bilboko etorkinen aurrean Aranak agertu zuen erreakzioa zekena izan zen erabat, ez sozialistek esaterako erakutsi zuten jarrera humanista eta solidarioa bezala, eta horrez gain erantzun horrek hispanitatearen handitasun eta aberastasuna gutxiestera bultzatu zuen, baina horrek ez dio ezer kentzen ezta gehitzen bere mezuaren mamiari, hau da, ikusi eta jendarteratu zuen gaurko munduko eraldakuntzen artean euskal kultura bideratu beharri. Horregatik beti pertsonai polemiko bat izango dela onartuz ere, gehienentzat politikari anakroniko bat, xelebrea eta alderraia, izango den bitartean beste batzuentzat aitzindari garrantzitsu batentzat hartuko dutela bezain ulergarria da.

## EXODOA

Sinestezina da Euskal Herriko historia modernoaren zehar nortasunaren auziak edo, hobeto esanda, abertzaletasun edo sasiabertzaletasun, “jatorrizkoa” delakoaren auziak eragin duen erbesteratuen (beste biktimen artean) kopurua.

Beti ba omen dago gure arazoak nori leporatu, hemengo atzerritarra, kanpoko ideiak dakarrena eta barreiatzen dituen gure berezko ohituren eta esentzia edota sustraiak disolbatzen eta desagertu araziz, hizkuntza edo erlijioaren galeraren erruduna, aberria behar den bezala sentitzen eta defendatzen ez duena, bestea, arerioa.

Bedi frantsestua Independentzia Gerran, bedi liberala Karlistadetan, bedi jesuita zenbait alditan, bedi euskal abertzalea atzo edo espagnolista (ustezko kosmopolita, ezjakintasunaren edo globalizazioaren heraldoa, Euskal Herri ahul eta minorizatu batek pairatzen duen gaixotasun ororen birusa) gaur, beti nolabait aurkitzen dugu berehalaren aurka egin behar dugun unean, baina hori bai, gure burua eta gure funtsak eta bizirauteko gutxieneko baliabideak defendatuz besterik ez.

Izendatu besterik ez dugu egiten, norbera baitelako bere jarreraren arduradun, eta jarrera horren ondorioak gainontzekoak, denok jasaten ditugulako. Berak jakingo du beraz zer eta zergatik egiten duen, guk ez diogulako ezer egin, dakiguna dakigula azaldu besterik ez. Eta baldin badoa, azkenean badoa, nahi duelako doala aitor dezan bederen, mesedez, gugatik izan delako beste gezurrik ez.

Atzera begira, halere, oso lur ezberdinetan eta elkarren urrunean ikusi ditugu erro horiek momentu batean edo bestean, eta munduaren bukaera askotan gertatu da. Bien bitartean Euskal Herriaren seme-alabarik preziatuenak erbestean bizi eta erbestean hil.

## KALEKO HIZKERA

Azken hamarkada hauetan, edo aldez aurretik ere, euskara herrikoia eta eguneroko bizitzan espontaneoki mintzatzen den euskara (galdu ez den eremuetan alegia) orientzaio-irizpide gisa balioesteko eta aintzat hartzeko joera gailentzen joan da euskal hizkuntzalaritzan, diktaduraren ondoko hego Euskal Herriko administrazioetan euskara formalaren esparruan hizkuntza normalizazioa lortzeko garatutako ahaleginen mugak azalduz eta azpimarratuz.

Hizkuntza bat ezin da aldizkari ofizialetatik berpiztu, argudiatzen da, ezin du benetan iraun hizkuntza bizirik moduan herriak berak ez baldin badu bereganatzen, eta hizkuntza normalizatzeko eta zabaltzeko prozesua era natural batean gertatu behar omen da, hau da, behetik gora, kaleko hizkeratik erregistro formaletara, eta ez alderantziz.

Adibide gisa jargoiak ipintzen dira, hizkuntzaren formalizazio gehiegizkoak (gure kasuan gehien bat euskara galdu zen guneeetan birsartzean euskara batuaren bidez gauzatzen denak) kaleko berezko erabilera ezin du ordezkatu, eta hizkuntza formala ezartzeak hizkera naturalaren humus horren hazkundea oztopatuko luke, jargoien ugaltzea berriz hizkuntzaren osasunaren seinale izango zelarik (euskararen kasuan, jargoien eza hizkuntzaren osasun ezaren seinale izango zelarik).

Ez dirudi zalantza askorik aurkezten duenik euskara hizkuntza bizi bezala mantendu den heinean ahozko euskara hizkuntza arautzean eta finkatzean patroitzat hartu behar izanak, esamoldeetan eta bestelako hainbat aspektutan, hizkuntza bat komunikazio kode bat denez gero praktikan egiaztatu behar baitu bere eraginkortasun eta efektibitatea, ahozko hitzunen arloan besteak beste, eta horrez gain bere barne logika historikoa zaindu behar da, logika hori neurtzeko hitzunen erabilera bizia tresna ezin hobea suertatzen delarik.

Eta egia da ere bai historian zehar zenbait hizkuntza badaudela, latina kasu, une batetik aurrera erregistro formaletara murriztuta gelditu zirenak, eguneroko hizkeran galtzen joan ziren bitartean. Baina oro har, eta gure historiari begira hain zuzen ere, erderak nola

nagusitu ziren euskararen kaltean? Euskarak gainezkatze indoeuropearra eta latinaren inguratzearen ondoren biziraun lortu eta gero, gaztelania eta frantsesa nola sartu ziren ordurarte hein handi batean euskalduna zen Euskal Herri batean euskara ordezkatu eta baztertzeko?

Hizkuntza formalak bezala.

Bere garaian ideologia abertzaleen diskurtsoan tesia hedatu zen euskararen etengabeko galera Gaztela, Espainia eta Frantziako botere politikoen aldetik zapalkuntza eta jazarpenaren ondorioz azaltzen zuena, baina bilakaera historikoak beste errealitate bat erakusten du, hau da, aurreko hori hein batean egi historikoa izanik ere, euskararen uzkurtzea ez zutelako bakarrik kanpoko presioek eragin bakarrik, baizik eta baita (batik bat agian) bertako eliteek gaztelania eta frantsesa (lehen latinarekin garaiko gizarte-balditzetan beste era batean gertatu zen bezala) hizkuntza formalak bezala baloratu egin zutelako, euskara eguneroko bizitzako hizkuntza ez-formal bat bezala tratatuz. Ez zen jazarpena bakarrik euskararen erabilpena jaitsiarazi zuena, mespretxua gehiago baino, eta ondorio askoz ere hondatzaileagoekin.

Ordurarte euskarak bizitzako hizkuntza zen Euskal Herriko toki eta zeregin gehienetan, orain miratzen diren ezaugarri guztiekin ziur aski (ahozko hizkeraren aberastasuna, jargoiak, erregistro anitz...), baina bere gainbehera eragin zuena hizkuntza ez formaltzat hartu izana zen hain zuzen ere, kalean eta etxean euskaraz egingo zutelako soilik, baina erregistro formalera pasatzean -mezetan, kontratu bat egiterakoan, epaitegiko prozeduretan, udaletxeko eta batzordeetako aktetan eta ebazpenetan, edota edozein motatako agiritan, testamentua egiterakoan- jendeak gaztelerara edo frantsesera jotzen zuen.

Euskara ez zen galdu edo jaitsi erregistro formalera murriztuta gelditu zelako, eguneroko erabilera baztertua izan zelako baizik.

Nola sartu ziren gaztelania eta frantsesa euskara atzera eginarazi eta horrenbeste gune eta esparrutan ordezkatu arte? Goitik behera.

Azken urteotako eskarmentuan, euskara suspertua izan den inguruetan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako iparraldean gehien bat, zaila da ukatzen hori euskararen hizkuntza formal gira berreskuratzeari zor zaiola oroz gain, administrazio publikoek mailakako erabiltzeari hizkuntza ofizialtasuna lortu duen eremuetan, literaturan euskara batua hizkuntza kultua bezala zabalpenari, eta hezkuntza sisteman lan-hizkuntza gisa sartzeari, eta abar.

Jakina demokrazia batean herria da gobernuaren zentzua eta nolabait bere politikako ardatz nagusiak hautatzen eta baldintzatzen duena, baina hizkuntzaren normalizazioaren bidea ez doa mitologia demokratikoak suposatu nahi duen bezala herritik erakundeetara, kaleko hizkeratik erabilera formalera, behetik gora, goitik behera baizik, hori da iraganak aurkezten duen egi hutsa. Estimazio formal eta kulturaletik, gizarte-estatus ikurria betekizuna barne, dator erabilera zabaltzea egurenoko bizitzan, eta ez alderantziz.

## LIZUNA

Elikagai naturalak denboraren poderioz usteldu egiten dira, eta egungo euskal literatura bazkatu duten zenbait ongarriri hori bera gertatzen zaiela iruditzen zait. Hogeigarren mendean euskara eta ondorioz euskal literatura abertzaletasun politikoak salbatu zituela ukatzen duenak ez daki zer dio edo gezurra esaten du, baina beti gazte eta beti hastear dagoen sapa horrek ez dakit zenbateraino ur ezberdinak edan dituen, haize arrotzetan ondu den edo eguzki zabal bakarrak hartu zuen behar beste.

Ez ote den aktibismoa zuzenkeria politikotan hondatu, hizkuntzaren kalitateari buruzko ardura histeria filologikoa bilakatu (pigmentuen organikotasunarekiko setak margolanekiko ezaxola eragiteraino), edo identitatearen inguruko ardura asperdura hutsetan bihurtu, hain zuzen ere.

Garbikeriatik (aski urrun egongo ez bailitzan) eta hiztun berrien akats eta erderakadetatik aldentzeko nahian antolatu den ustezko jatortasun sakratuaren bilaketa orokorra (mintzaira literarioa beti artifiziala ez bailitzan) eta ezkerreko kontsentsu orobiltzailea (jenero ideologiak, erlatibismo kulturala eta bestelako kale azokako plastikozko purtzileria intelektualak barne) ez ote diren testuetan ideien presentzia izatezko debekua inposatzera iritsi hermeneutikaren izenean.

Katolizismo berritik, eskolastikatik eta ortodoxiatik at bizitza ote dagoen baten batek bere buruari galdetzen badio lasai egon dadin, jakina baietz, ez da bakarrik bizitza badagoela mandarinen erresumaren gogaitasunetik kanpo, aldiz, bizitza hor harresi handiaren beste aldera dagoena dela baizik. Agian ahaztu egin zaigu euskal literatur lan ederrenak eta irakurrienak besteak beste pederasta nazi batek idatzi zituela, eta gaurko mandarinek ere mandarinak ez zirenean, besterik gabe.

## IZENA

Feminismoari arazo gehienak izen bat jarri izanagatik datozkio, arrazismoaren edota klasismoaren aurka egiteari ez baitiogu izen bat jartzen, arraza edo etnizitate ezberdineko edo jatorri sozial ezberdineko jendeen arteko berdintasunaren fikzio legala eta morala zuzentza hutsa dela badakigulako, eta justizia deitzen diogu, besterik ez, izen berezi baten beharrik gabe. Gizonezkoen eta emakumezkoen artean berdintasun inperatibo moralari, zeinaren indar garaiezina bere sinpletasunean datzan, aldiz, izen bat jartzea bururatu zitzaion baten bati.

Eta hortik belaunaldi osoak aspertzeko, maneiatzeko eta menperatzeko moduan jasotzen ari garen zabor sistemiko guztia, genero perspektibak eta genero ikasketak, kuotak, diskriminazio positiboak, publikoaren eta erakundeen bizkarrean jate bukaezinak, emozioen eta gorputzaren inguruko berritsukeria, puritanismo berriak, deseuztapena eta erlijioen antzeko zentsurak eta abar.

Dena ausaz justizia hutsa eta ageria besterik ez zenari eta denari behar ez duen izen bat eman izanagatik eta gero hori betetzeko edukiak asmatzen ibili izanagatik.

## LEGEA EZAGUTZEA

XIX. mendean kodifikazio-prozesuari ekin ziotenean Europako nazio-estatu berrietan, horren aurkako erreakzio kementsuena ez zen mundu anglosaxoitik etorri, estatu germanikoetatik baizik. Kodifikazioak herriaren arima hilko zuela defendatzen baitzuten, berez fluidoa den zerbait izoztuz nonbait. Savigny-rentzat, adibidez, araudia herri baten izpirituaren (volkgeist) isla zen hizkuntza, dantza, erlijiotasuna edo usadio sozialak bezainbeste.

Aldiz, ilustratuek programa entziklopedistari eusten zioten zuzenbidearen arloan ere: legeriaren multzo nahaspilatua testu sistematiko eta arrazional batean biltzea, kode batean hain zuzen ere, sistema legal osoa zentzuduna izan zedin eta, batez ere, edozein herritarrek ezagutzeko eta ulertzeko moduan, hau da, bere portaera bizitzako arlo orotan legala zela ziurtatzea izango zuela bermatzeko.

Horren jatorria ez zetorren bakarrik Ilustrazioak eragindako eredu filosofiko-humanistikotik, politikoa ere bazen. Ancient régime eraitsita eta monarka absolutuen botereak murriztuta eta, bereziki, herrialdearen gaineko subiranotasuna erregearen pertsonari kenduta herriari aitortu ondoren, herritar guztiak subiranoak baldin baziren beren herrialdeetako legeak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra ere bazituzten.

Azkenean oposizioa gaindituz eta lan itzel batez kodifikazio prozesuak aurrera egin zuen Europako herri gehienetan (guztietan Erresuma Batuan baizik, bereziki Ingalaterran eta Galesen, hortik aurrera Common Law sistema aurekonstituzionalari deitzera pasa zirenak, eta Civil Law piramide kelsenianoko sistema konstituzionala erabiltzen zutenei kontrajarriz), eta kode zibil, zigor-kodeak, eta merkataritzaren kode ederrak idazten eta iragartzen asmatu zituzten (baita prozedurako kodeak ere, eta abar), oraindik indarrean jarraitzen dutenak.

Baina denboraren poderioz XX. mendeak kodeak apurka husten joan dira, edukiak galduz lege eta erregulazio bereziak sortzeko ustezko premiengatik, eta bestaldetik araudiaren

corpusa -baita jurisprudentziarena ere- horrenbeste hazi da ezen ozeano labirintiko bat bihurtu den ia, legegizon espezializatuentzat ere ia helezina, zeresanik ez herritar arrunt batentzat, zeinari ia ezinezkoa bilakatu baitzaio egoera bakoitzean legalki nola jokatu behar duen ezagutzea, aplikatzen den araua edo irizpidea.

Porrot bat al da hori?, Ilustrazioaren beste porrot bat? Tira, aitor dezagun programa entziklopedista inozo samarra zela hasiera batetik (arloan honetan baita gehienetan ere). Antzinako Erroman (eta Erdi Aroan) mende luzez testu legal bakarrak eta bateratuak izan baitzituzten -Justinianoren Corpus iuris civilis-a esate baterako-, eta horrek ez zuen herritarrek legea gehiago ezagutzea eragin orokorrean. Egia da garai desberdinak zirela haiek, hasteko analfabetismoa oztopo nagusia zelako, eta abar, baina egia da ere testu legal bateratuak, sistematikoak, eta ulerterrazak izanik ere horiek ezagutzeko trabarik nabarmenena (horri oztopo deitzea ez litzateke aproposa) interes falta dela.

Ez behar falta, ezta komenigarritasun falta ere, interes falta hutsa baizik, baita denbora falta hutsa ere. Beraz araudiaren geroz ta gehiagoko izaera hipertrofikoa, konplikatuegia, anarkikoa eta ulergaitza ez dezagun aitzakiatzat hartu: arazoa hein handi batean gure baitan dago.